

# Herrialde-txostena: Kolonbia

basque  
trade &  
investment

*2020ko ekaina*

+ Euskadik Kolonbian duen ordezkari-tza

+ Adimen Lehiakorreko Unitatea



**BasqueTrade  
& Investment**

Agencia Vasca de Internacionalización  
Nazioartekotzeko Euskal Agentzia

GRUPO  
**spri**  
TALDEA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO  
BASQUE GOVERNMENT



## AURKIBIDEA

<b>1. DATU OROKORRAK .....</b>	<b>4</b>
Gobernua.....	4
Biztanleria.....	4
Ekonomia.....	4
Beste batzuk.....	4
<b>2. BEGIRADA .....</b>	<b>5</b>
<b>3. TESTUINGURU SOZIO-POLITIKOA .....</b>	<b>6</b>
<b>4. TESTUINGURU MAKROEKONOMIKOA .....</b>	<b>7</b>
4.1 Abagune ekonomikoa.....	7
4.2 Balantza komertziala .....	8
4.3 Atzerriko inbertsioa .....	9
4.4 Enplegua.....	11
4.5 Aukera ekonomikoak.....	12
<b>5. KANPO-MERKATARITZA .....</b>	<b>13</b>
<b>6. ALDEBIKO HARREMANAK.....</b>	<b>16</b>
6.1 Euskadi eta Kolonbiaren arteko merkataritza .....	16
6.2 Euskadiren posizionamendua .....	19
6.3 Aldebiko inbertsioak .....	21
<b>7. SEKTORE NAGUSIAK.....</b>	<b>22</b>
7.1 BPGari egindako ekarpena .....	22
7.2 Negozio-aukerak .....	23
<b>8. NAZIOARTEKO HARREMANAK .....</b>	<b>25</b>
8.1 Nazioarteko kidesunak.....	25
8.2 Merkataritza-akordioak.....	25
<b>9. ASKOTARIKO ARRISKUAK .....</b>	<b>26</b>
<b>10. ONDORIOAK .....</b>	<b>27</b>
<b>11. ERREFERENTZIAK.....</b>	<b>28</b>



## ILUSTRAZIOEN AURKIBIDEA

1. ilustrazioa: Kolonbiako negozio-aukeren mapa, sektoreka.....	23
---	----

## TAULEN AURKIBIDEA

1. taula: BPGaren adierazleak eta 2021erako aurreikuspena .....	8
2. taula: Kanpo-merkataritzaren zenbakiak Kolonbian, 2015-2018 .....	8
3. taula: Atzerriko Inbertsio Zuzenaren (AIZ) zenbakiak Kolonbian, 2016-2018.....	10
4. taula: Enpleguaren zifrak Kolonbian, 2019 .....	11
5. taula: 2020-2024rako aurreikuspen makroekonomikoa .....	12
6. taula: Kolonbiatik esportatu diren produktu garrantzitsuenak muga-zergen kapituluka, 2018.....	14
7. taula: Kolonbiaren inportazioak jarduera ekonomikoka eta EBko herrialdeka .....	15
8. taula: Euskadi eta Kolonbiaren arteko inportazioak eta esportazioak milaka eurotan, 2015-2018 .....	16
9. taula: Kolonia eta Euskadiren arteko merkataritza produktuka, 2019.....	17
10. taula: Euskadiko eta Espainiako esportazioak Kolonbiara jarduera ekonomikoka, 2018.....	18
11. taula: Kuota ranking-a sektoreka 2017an, eta kuoten bilakaera hazkundearen arabera, 2002-2017 .....	19
12. taula: Sektore ekonomiko desberdinen inpaktua Kolonbiako BPGan, 2018.....	22
13. taula: BPGaren hazkunde-tasa jarduera ekonomikoaaren arabera .....	22
14. taula: Kolonbiari buruzko Coface-ren balorazioa .....	26

## GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. grafikoa: BPGaren hazkundera Kolonbiako Errepublikan %-tan, 2000. urtetik aurrera .....	7
2. grafikoa: Kolonbiako balantza komertziala, milioi dolarretan FOB.....	9
3. grafikoa: Kolonbiako ranking-a azterlan desberdinetan, 196 herrialderi buruzko 2020ko <i>Doing Business</i> indizearen arabera .....	10
4. grafikoa: Kolonbiako langabezia-tasa, 1997-2019.....	11
5. grafikoa: Kolonbiaren bazkide komertzial garrantzitsuenak .....	13
6. grafikoa: Euskadi eta Kolonbiaren arteko inportazioak eta esportazioak 2004tik, milaka eurotan .....	16
7. grafikoa: Euskadiko eta Espainiako esportazioak Kolonbiara milaka eurotan, eta Espainiako esportazioetan duten %-a, 2005-2018.....	18
8. grafikoa: Kolonbiak inportatutako euskal produktuen hazkundera sektoreka, 2012-2017 .....	21



# ➔ 1. DATU OROKORRAK



Gobernua	Biztanleria
<p><b>Gobernu mota:</b> errepublika presidentzialista</p> <p><b>Gobernuko presidentea:</b> Iván Duque Márquez</p> <p><b>Presidenteordea:</b> Marta Lucía Ramírez Blanco</p>	<p><b>Guztira:</b> 49,6 milioi</p> <p><b>Hazkunde naturala:</b> % 0,97</p> <p><b>Hirietako biztanleria:</b> % 80,8</p> <p><b>Hizkuntza ofiziala:</b> gaztelania</p> <p><b>Negoioetarako hizkuntza:</b> gaztelania, ingelesa</p> <p><b>Hiriburua:</b> Bogota</p> <p><b>Hiri garrantzitsuenak (biztanleria):</b> Bogota (9,15 milioi), Medellin (3,71 milioi), Cali (2,87 milioi), Barranquilla (1,95 milioi)</p>



Ekonomia	Beste batzuk
<p><b>BPG (2018, mila milioi euro):</b> 318,80</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- <i>Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza (BPGaren %-a, 2018):</i> % 6,27</li> <li>- <i>Industria, eraikuntza barne (BPGaren %-a, 2018):</i> % 26,67</li> <li>- <i>Zerbitzuak (BPGaren %-a, 2018):</i> % 57,72</li> </ul> <p><b>Per capita BPGa (PPP, 2018, euro):</b> 6.325</p> <p><b>BPGaren hazkundera (2018):</b> % 2,6</p> <p><b>Urteko inflazioa (2018):</b> % 3,2</p> <p><b>Enplegu-tasa (2019):</b> % 55,3</p> <p><b>Langabezia-tasa (2019):</b> % 12,8</p> <p><b>Ondasun eta zerbitzuen esportazioak (2018, milioi euro):</b> 50.899</p> <p><b>Ondasun eta zerbitzuen inportazioak (2018, milioi euro):</b> 64.421</p> <p><b>Merkataritza (BPGaren %-a):</b> % 36,8</p> <p><b>Kanbio-tasa (2019ko martxoa):</b> 1 euro = 4.350 COP</p>	<p><b>Gini indizea (2018):</b> 49,7</p> <p><b>I+G-ko gastua (BPGaren %-a, 2018):</b> % 0,24</p> <p><b>Internet erabiltzaileak (biztanleriaren %-a, 2018):</b> % 64,13</p> <p><b>Telefono mugikorren harpidedunak (100 biztanleko, 2018):</b> 129,90</p>

Iturriak: CIA, IMF, The World Bank, DANE, WTO



## 2. BEGIRADA

Kolonbia etengabeko hazkunde politiko eta sozialean murgilduta dago. 2016an FARC gerrillako lider Rodrigo Londoñok (goitizenez Timochenko) eta Kolonbiako presidente ohi Juan Manuel Santosek bake-akordioa sinatu zutenetik, ekonomia, atzerriko inbertsio zuzena eta turismoa asko hazi dira Kolonbian.

2010az geroztik, BPGak % 3,8ko urteko batez besteko hazkundea izan du eta kontinenteko batez bestekoaren gainetik hazi da, ekonomikoki Latinoamerikako herrialde egonkorrenetako bat bihurtu delarik. Egonkortasun ekonomikoari eta neurri politiko eta ekonomikoei esker, erdi-mailako klasea ugaritu egin da, biztanleriaren % 36ra iristeraino. Horrek esan nahi du erdi-mailako klaseko pertsonak gehiago direla pobrezia arriskuan edo pobrezia gorrian bizi direnak baino.

Lehiaren lege-esparruari dagokionez, Latinoamerikan beste inon baino erreforma gehiago egin dira negoziazio-giroa hobetzeko. 2006tik ia berrogei erreforma egin dira merkatua azkartzeko eta inbertsio berriak erakartzeko. Munduko Bankuaren *Doing Business* indizearen (jomuga-herrialde batean negozioak egiteko erraztasuna neurtzen duena) arabera, Kolonia 67. postuan dago 70.1 punturekin. Bere indar-guneetako batzuk dira kredituak lortzeko erraztasuna (11. postua), inbertsiogile txikien babesa (13. postua) eta kaudimen gabeziari aurre egiteko gaitasuna (32. postua).

Euskadiko esportazioen ranking-ean (209 herrialde daude ranking horretan) Kolonia 41garren dago, 90 milioi euro esportatu zirelarik 2019an. Gainera, kalkulatzen da zifra hori handitzen joango dela Kolonbiako jardura ekonomiko hazkorraren ondorioz, bai eta euskal enpresen filial komertzialak han ezarri direlako (70etik gora gaur egun).

Bestalde, lehendakariak eta Cundinamarca departamenduko gobernadoreak 2017an eskualde arteko lankidetzak akordio bat sinatu zutenetik, eskualde hori Euskadiren Aliantza Estrategikoen Sareko bazkide da. Iñigo Urkullu lehendakariak bereziki nabarmendu zuen Kolonia lehentasunezko herrialdea dela Euskadiren nazioartekotze-estrategian, eta Kolonbiako departamendu hori (Kolonbiako BPGaren % 30) dela eskualde garrantzitsuena han ezarrita dauden euskal enpresentzat.

Azkenik, COVID-19ak eragindako ziurgabetasunak asko aldatu ditu estatuko eta nazioarteko organismo batzuek egindako aurreikuspenak. Adibidez, NDFK iragarri du BPGa hasieran aurreikusitakoa baino % 5 txikiagoa izango dela, baina beste erakunde batzuek diote beherakada hori portzentajezko 7 puntukoa izango dela. Horri gehitu behar zaio pobrezia-maila % 40tik gorakoa dela –iragan bi hamarkadetan inoiz ezagutu ez den portzentajea–, eta langabezia-tasa ustez % 19,8-% 22,5 bitartean kokatuko da. Nolanahi ere, gobernuak itxaropen mezua zabaldu nahirik dio berronertze-prozesua azkarra izango dela ekonomia nazionalaren adar guztietan. Era berean, nazioarteko antolakunde horiek Kolonbiarentzat egin dituzten aurreikuspenak Latinoamerikako gainerako herrialdeenak baino itxaropentsuagoak dira, Kolonbiako BPGa izango baita 2020an gutxien murriztuko dena.



## 3. TESTUINGURU SOZIO-POLITIKOA

Kolonbia errepublika presidentzialista eta estatu unitarioa da. Boterea hiru arlotan banatuta dauka: legegilea -Errepublikako Kongresuak ordezkatur-, exekutiboa -agintariak ordezkatur-, hots, presidentek, gobernadoreak eta alkateak-, eta judiziala -gorteak ordezkatur-. Botere hori, eta kolonbiar guztien eskubide eta betebeharrak 1991ko Konstituzio Politikoan daude zehaztuta. Hauteskundeak 4 urterik behin egiten dira hiritartasun-zedula duten 18 urtetik gorako guztien borondatezko sufragio bidez. Kolonbiak du Latinoamerika osoko abstentzio-tasa handienetako bat.

2018ko martxoaren 27an egin ziren Kolonbiako Errepublikaren presidentetzarako hauteskundeak. Nola presidentetzarako ezin hautagaik ez zuen jaso botoen % 50a, bigarren itzuli bat egin zen urte bereko ekainaren 17an, zeinetan Zentro Demokratikoko hautagai Iván Duque Márquezek lortu baitzuen botoen % 54,03a eta hautatua izan baitzen Kolonbiako Errepublikako presidente izateko.

Babes eskas hori dela medio, arazo asko izan ditu Kongresuan erreformak onartarazteko, bere alderdiak 19 senatari eta ganberako 32 ordezkari bakarrik lortu baitzituen. Horregatik, lehen indarra izan arren, beste babes batzuk behar ditu erreformak egiteko. Horrek ezegonkortasun sozial eta politikoa sortu du. Horren erakusgarri dira joan den urteko azaroaz geroztik gertatzen ari diren protesta eta lanuzteak, zeintzuetan biztanleriak protesta egiten baitu hezkuntza publikoan, enplegu publikoetan eta pentsioetan eginiko murrizketengatik, eta FARCeekin sinatutako Bake-itunaren inplementazio-maila eskasagatik. Horri gehitu behar zaio Kolonbiako herritarrek segurtasun falta sumatzen dutela eta gerrillak eta paramilitarrek Kolonbiako lider sozialak eta giza-eskubideen defendatzaileak erailtzen dituztela (2019an 250 hilketa izan ziren).

Horregatik, hiritarren oniritzia lortu beharrez, Gobernuak hainbat neurri hartu ditu gizarte-banaketak arintzeko. Adibidez, Gizarte Segurantzarako eskubideari dagokionez, estaldurak ugaritu ditu eta Hazkunde Legea izeneko zerga-erreforma abiarazi du, zeinaren bidez erabaki garrantzitsu batzuk hartu baititu, hala nola: BEZa biztanleria kalteberenari itzultzea, diru-sarrera gutxien dituzten hiritarrak babesteko; Sozietateen gaineko Zerga % 33tik % 30era jaitea 2022rako; fase anitzeko zerga berri bat garagardo eta edari karbonatuentzat (gasdunak), eta lan-modu berriak inplementatzea, esaterako, Faktura Elektronikoa.

Ekonomia hazten ari da Bake-ituna sinatu zenetik eta gizarteak konfiantza berreskuratu du. Hala, turismoarena izan da ituna sinatu zenez geroztik gehien hazi den sektoreetako bat. Kolonbia dagoeneko ez da jomuga arriskutsu bat turista atzerritarrentzat, baizik eta erakargarritasun turistikoki handia duen herrialde bat, eta hainbat sektorek erabaki dute euren irudia eta posizioa egokitzea turistikoki erakargarri izateko. Hartara, turismoa % 50 handitu da azken bosturtekoan, eta espero da hazkundeak erritmo berean jarraituko duela 2024ra arte. Horregatik, ikusirik sektorea handitzen ari zela eta Airbnb bezalako plataformak herrialdera iristen hasiak zirela, 2018an ostatu turistikoko legezatzeko 2118 Dekretua argitaratu zen. Baina oraindik ez dakigu nolako inpaktua izango duen COVID-19ak turismo globalean, eta horrek ziurgabetasuna sortu du sektorean epe labur eta ertainera.

Kolonbiako Gobernuak eta gizarteak beste krisi sozial bati aurre egin behar izan diote azken urteotan: migrazioari, bereziki Venezuelatik datorrenari. Historikoki, kolonbiarrak izan dira Venezuelara migratu izan dutenak aukera berrien bila, baina ezegonkortasun politiko, ekonomiko eta sozialak guztiz aldatu du Venezuelaren hartzaile papera. "Migración Colombia" agentziak emandako datuen arabera, kalkulatu da 2019ko abuztuaren 1ean 1.400.000 migratzaile venezuelar zeudela Kolonbian, eta kalkulu ofizialik ez dagoenez, uste da kopuru hori laster iritsiko dela bi milioira.




## 4. TESTUINGURU MAKROEKONOMIKOA

### 4.1 Abagune ekonomikoa

Kolonbiako ekonomia herrialdeko baliabide naturalen erauzketa eta ustiapenean zentratzen da nagusiki: kafea, esmeraldak eta beste harribitxi batzuk, petrolio eta ikatza, besteak beste. Horregatik izan du hazkunde eredugarria eta erritmo bizikoa azken ia bi hamarkadetan. Adibidez, azken hamarkadan BPGaren hazkunde urteko % 7,36koa izatera iritsi da aurreko urtearekin alderatuta. Grafiko honetan ikus daiteke nolakoa izan den hazkunde 2000. urteaz geroztik. Hazkunde hori beti izan da positiboa, baita 2008ko krisian edo petrolioaren prezioak jaitsi zirenean ere. Espero da datozen urteetan BPGaren hazkunde-joera aurreikusitakoa (% 3,7) baino txikiagoa izango dela COVID-19ak eragindako krisiaren ondorioz. NDFk oraintsu egin dituen txostenen arabera, BPGa % 2,4 haziko da 2020an, hau da, portzentajezko 5 puntu baino gehiago jaitsiko da hasierako aurreikuspenarekin alderatuta.

1. grafikoa: BPGaren hazkunde Kolonbiako Errepublikan %-tan, 2000. urtetik aurrera



*Iturria: The World Bank, 2020.*

Petrolioaren prezioen jaitsieraren, produkzio nazionalaren beherakadaren eta petrolio gordinaren inportazio handiagoaren ondorioz, Kolonbiako defizit komertziala hazi egin zen 2019an eta badirudi joera hori ez dela gehiegi aldatuko 2020an. Inflazioak gora egin badu ere azken urteetan (2019an % 3,6ra iritsi zen), kalkulatzen da behera egingo duela hemendik aurrera. NDFk COVID-19aren krisiaren harira egin duen azken txostenak dio inflazioa % 3,2koa izango dela 2020an.

Familien kontsumoari dagokionez, aurreikusten da behera egingo duela lan-merkatuak azken urteotan erakutsi duen ahultasunagatik eta familientzako kredituak gutxitu egin direlako. Aldiz, zor publikoa gutxitu egingo da 2020an, aurreikusten baita BPGaren % 49raino jaitsiko dela (2019an % 51koa izan zen) eta joera berari eutsiko diola 2021ean, Kolonbiako BPGaren % 46,7ra jaisteraino.

2018an onartu eta 2019an berrikusitako zerga-erreformak (indarrean dago 2020ko urtarriletik aurrera) aldaketa handiak eragin ditu Kolonbiako pertsona natural eta juridikoentzako zerga-sisteman. Erreforma hori "paquetazo Duque" delako neurri-sortaren barruan txertatu zen, zeinak bere baitan hartzen baititu Iván Duque presidenteak aplikatu nahi izan dituen hainbat erreforma sozial eta ekonomiko. Ogasun Ministerioaren arabera, zerga-sistema berri honekin 13,5 bilioi peso kolonbiar inguru bilduko dira; antza denez, sistema zuzenagoa eta bidezkoagoa da, eta Gini Indizea murriztea lortuko du. Sistema berriak hainbat neurri-sorta aurreikusi ditu pertsona kaltetuenei laguntzeko eta zerga-ihesaren tasa murrizteko. Adibidez, diru-sarrera



gehien dutenei zerga-karga handiagoa aplikatuko zaie, bazterkeria sozialeko egoeran dauden pertsoneri eta diru-sarrera gutxien dituztenei BEZa itzuliko zaie (2021etik aurrera), eta fase anitzeko BEZa aplikatuko da garagardo eta gaseosa edo edari karbonatuen kontsumoan. Gainera, pertsona juridikoek hainbat zerga ordaindu beharko dituzte, eta zerga-hobariak aplikatuko zaizkie lan-esperientziarik gabeko 28 urtetik beherako gazteak kontratatzen dituzten enpresei. Sozietateen gaineko zerga % 30era jaitsiko da, kapital-ondasun inportatuei BEZ txikiagoa aplikatuko zaie, eta abar. Neurri horiek helburutzat dute enpresak eta euren jarduera ekonomikoa indartzea.

Koadro honetan ikus daitezke NDFk datozen urteetarako egin dituen kalkuluak, zeintzuen arabera BPGa (balio absolututan) eta *per capita* BPGa murriztu egingo baitira COVID-19aren ondorioz.

### 1. taula: BPGaren adierazleak eta 2021erako aurreikuspena

Adierazlea	2017	2018	2019	2020 (e)	2021 (e)
BPG (mila milioi USD)	311,80	330,97	327,90	320,03	331,87
BPG (urteko bariazioa, %)	1,4e	2,6	3,4	-2,4	3,7
<i>Per capita</i> BPG (USD)	6.325e	6.642e	6.508	6.744	7.054

*Iturria: Nazioarteko Diru Funtsa, 2020.*

## 4.2 Balantza komertziala

Munduko Bankuaren datuen arabera, kanpo-merkataritzak BPG nazionalaren % 36,8 ordezkatu zuen. Zifra hori boskoiztu egin da azken 10 urteetan, argi utziz zein garrantzitsua den kanpo-merkataritza Kolonbian. Hauek dira gehien esportatzen diren produktuak: petrolio (gordina eta birfindua) (% 39,9), ikatza (% 15,7), kafea (% 5,6), loreak (% 3,5) eta urrea (% 3,5). Eta hauek dira gehien inportatzen direnak: petrolio (% 6,3), irratia eta telefonia gailuak (% 4,7), motordun ibilgailuak (% 4,5), medikamenduak (% 2,8) eta datuak prozesatzeko makinak (% 2,3).<sup>1</sup> Kolonbiaren bazkide komertzial garrantzitsuenak dira Estatu Batuak, Txina, Mexiko, Panama, Brasil eta Ekuador.

Kanpo-merkataritzaren zifrak atzerakada txiki bat izan du azken urteotan, nagusiki petrolioaren prezioak behera egin duelako eta bere bazkide garrantzitsuenekin zuen negozio-bolumena (bai inportaziokoa eta bai esportaziokoa) gutxitu egin delako. Hala eta guztiz ere, kanpo-merkataritza apur bat suspertu zen 2017an eta baita 2018an ere. Datu ofizialik ezear, kalkulatu da 2019an hazteko joerari eutsi diola.

### 2. taula: Kanpo-merkataritzaren zenbakiak Kolonbian, 2015-2018

Kanpo-merkataritza	2015	2016	2017	2018
Ondasunen inportazioa ( <i>milioi USD</i> )	54.058	44.890	46.076	51.233
Ondasunen esportazioa ( <i>milioi USD</i> )	35.691	31.045	36.897	41.774
Zerbitzuen inportazioak ( <i>milioi USD</i> )	11.084	10.816	12.296	13.188
Zerbitzuen esportazioak ( <i>milioi USD</i> )	7.150	7.796	8.171	9.125


*Iturria: Merkataritzaren Munduko Erakundea, 2020.*

<sup>1</sup> *Iturria: COMTRADE, 2019.*





## 2. grafikoa: Kolonbiako balantza komertziala, milioi dolarretan FOB



Iturria: DANE, 2020


## 4.3 Atzerriko inbertsioa

UNCTADek iaz argitaratutako “World Investment Report” txostenaren arabera, Kolonbiak 11.000 milioi dolarreko AIZ edo Atzerriko Inbertsio Zuzena izan zuen 2018an. Hala ere, zifra hori beste urte batzuetakoa baino txikiagoa izan da, beheranzko joera hartua baitu 2016tik. Adibidez, 2017ko zifra 13.800 milioi dolarrekoa izan zen. Azken urteotan segurtasun baldintzak eta atzerriko inbertsioa hobetu egin badira ere, sektore ekonomiko asko daude atzerriko inbertsioaren menpe, batez ere baliabide naturalak ustiatu eta erazten dituztenak, esaterako, meatzaritza eta energia sektoreak. Inbertsioari dagokionez, Estatu Batuak dira Kolonbiako ekonomian gehien inbertitzen dutenak eta Europar Batasuna da geografikoki inbertsiogile gehien hornitzen dituenak. Brasilekin batera, Kolonbia izan zen 2018an atzerriko desinbertsio handiena jasan zuen Latinoamerikako herrialdea.

AIZ ulertzeko oso kontuan hartu behar da Munduko Bankuak urtero argitaratzen duen *Doing Business* indizea. Indize horrek neurtzen du herrialde batek negozioak egiteko eskaintzen duen erraztasuna, horretarako kontuan hartuz burokrazia, negoziazio, finantzaketa eta azpiegitura arloetako erraztasunak nahiz datu makroekonomikoak (adibidez inflazioa) eta baita ere herrialde bakoitzeko merkataritza arloko lege eta araudiak. Zentzu horretan, Kolonbia 67. postuan dago *Doing Business* txostenak aztertzen dituen 190 herrialdeen artean. Halere, beheranzko joera ageri du 2016tik, eta beraz, zailtasun gehiago dago negozioak egiteko. Hala, 2019an 65. postuan zegoen, 2018an 59.ean, 2017an 53.ean eta 2016an 51.ean.



**3. grafikoa: Kolonbiako ranking-a azterlan desberdinetan, 196 herrialderi buruzko 2020ko *Doing Business* indizearen arabera**



Iturria: *Doing Business – The World Bank, 2020*

Kolonbian Atzerriko Inbertsio Zuzenak egiten dituzten enpresak finantza eta komunikazio sektoreetakoak dira gehienbat. 2012an, Kolonbiak apustu sendoa egin zuen 4G teknologia inplementatzeko herrialde osoan, berau izan zelarik Latinoamerikako sare-azpiegiturako programa handiena. Horregatik, telekomunikazioen sektoreko enpresa askok Kolonbia aukeratu zuten Latinoamerikan inbertitzeko. Eta, hain zuzen horrexegatik, Kolonbiako gobernu eta bertako zein atzerriko enpresak elkarrekin lanean ari dira 4G herrialde osoan inplementatzeko (San Andrés eta Providencia uharteak barne), eta baita ere 5G teknologia bertara ekarri eta normalizatzeko; espero da proba pilotuak 2020an hasiko direla eta merkaturatzeko prest egongo dela 2021erako. Bestalde, atzerriko enpresa berriak Kolonbiako merkatuan sartzen ari dira herrialdean egiten ari diren proiektu eta lizitazio ugarien bitartez (azpiegiturakoak, energiakoak, zerbitzuetakoak, mugikortasun eta garraio sektorekoak, e.a.), eta ondorioz, finantza eta kreditu arloetako enpresa askok Kolonbia aukeratu dute inbertitzeko. FARCEkiko bake-ituna sinatu ondoren iragarri zen nabarmen handituko zela AIZ, baina hazkunde hori ez da izan gobernu nazionalak eta adituek espero zuten bestekoa. Halere, telekomunikazio eta finantza-zerbitzuen sektoreez gain, badaude asko hazi diren eta Kolonbiaren aldeko apustua egin duten beste sektore batzuk ere: adibidez, petrolioaren sektorea, non AIZ % 45 hazi den, eta garraio eta biltegiatze sektoreak, zeintzuetan bikoiztu egin den azken urteetan. Halaber, aipatzekoa da enpresa farmazeutikoek Atzerriko Inbertsio Zuzen gisa Kolonbian egindako inbertsioa (Latioamerikako herrialde guztietako handiena 2018an).

**3. taula: Atzerriko Inbertsio Zuzenaren (AIZ) zenbakiak Kolonbian, 2016-2018**

Atzerriko Inbertsio Zuzena	2016	2017	2018
AIZ inbertsioa (milioi USD)	13,85	13,836	11,01
AIZ stock-a (milioi USD)	164,5	179,54	188,75
Greenfield inbertsio kopurua	101	109	216

Iturria: UNCTAD, 2019.



## 4.4 Enplegua

Kolonbiak metodologia konplexua du enplegua kalkulatu, aztertu eta interpretatzeko. Esan beharra dago Kolonbiako ekonomiak enplegu informal handia duela. Multzo horretan sartzen dira kontratu gabeko langile independenteak, saltzaile ibiltariak, etxeko zerbitzuko langileak, kristal garbitzaileak, eta abar luze bat. Ez dute zergarik ordaintzen, soldata baxuak dituzte (batzuk gutxieneko soldata baino baxuagoak) eta ez dute babes legal egokirik lan harremanetarako. Horregatik, zifrak oso kezagarriak dira: Kolonbiako 23 hiri garrantzitsuenetako enplegatuen % 47 langile informalak ziren 2020ko urtarrilean.

Langileen sektorekako banaketari dagokionez, aipatzekoa da sektoreen zerbitzua asko hazi dela azken hamarkadetan, eta gaur egun sektore horretan dagoela enpleguaren % 65a. Gainera, kalkulatu da proportzio horrek handitzen jarraituko duela datozen urteetan, lehen eta bigarren sektoreen kontura. Halere, eta lehen sektoreko tasa asko murriztu bada ere, herrialdeko langileen % 16,19 lehen sektorekoak dira gaur egun. Langile informalak izaten dira, norbere kontura aritzen direnak edo hirugarren batentzat lan egiten dutenak.


### 4. taula: Enpleguaren zifrak Kolonbian, 2019

Enplegua	2019
Enplegua guztira ( <i>milioi pertsona</i> )	21,54
Lehen sektorea ( <i>guztizkoaren %</i> )	% 16,19
Industria sektorea ( <i>guztizkoaren %</i> )	% 19,34
Zerbitzuen sektorea ( <i>guztizkoaren %</i> )	% 64,45
Langabezia-tasa ( <i>biztanleria aktiboaren %</i> )	% 9,10

*Iturria: The World Bank, 2020*

Langabezia-tasa joeren arabera aldatu izan da beti Kolonbian. 1999 eta 2000 urteetako finantza- eta moneta-krisietan langabezia-tasa % 21eraino iritsi zen, baina harrezkero beherantzko joera izan du. Gorakada bakarra 2008ko krisian eman zen, non % 11,2tik % 12ra igo baitzen. Ondoren, tasak beherantz jarraitu zuen 2015era arte, eta harrezkero handitzen ari da pixkanaka, 2019aren amaieran % 9,2an zegoelarik.

### 4. grafikoa: Kolonbiako langabezia-tasa, 1997-2019



*Iturria: The World Bank, 2020*



## 4.5 Aukera ekonomikoak

Azken hamarkadetan, Kolonbiako ekonomia nabarmendu da etengabe hazteagatik eta inbertsio-aukera ugariak eskaintzeagatik. Horregatik, aurreikuspenak nahiko positiboak dira datozen urteetarako, 2020rako izan ezik (COVID-19ak izan duen inpaktuagatik). Hala, aurreikusten da 2020ko BPGaren hazkundera negatiboa izango dela, eta hasieran eginiko aurreikuspenarekin alderatuta, 5 puntu baino gehiago murriztuko da. Ez dakigunez nolakoa izango den 2021eko bilakaera, NDFk berdin mantendu ditu urte horretarako eta hurrengoetarako hazkunde aurreikuspenak. Halaber, espero da inflazioa gaur egungo % 3,8koa baino txikiagoa izango dela, 4.1 puntuan azaldu den bezala. Adituek diote datozen urteetan % 3ra jaitsiko dela.

### 5. taula: 2020-2024rako aurreikuspen makroekonomikoa

Aurreikuspen makroekonomikoak	2020	2021	2022	2023	2024
BPGaren aurreikuspena ( <i>mila milioi dolar</i> )	320,03	331,87	353,13	366,37	379,74
BPGaren aurreikuspena ( <i>hazkunde %-a</i> )	% -2,40	% 3,749	% 3,749	% 3,749	% 3,649
<i>Per capita</i> BPGaren aurreikuspena ( <i>USD</i> )	6.993,31	7.251,51	7.588,93	7.949,81	8.319,88
Inflazioa (%)	% 3,175	% 3,042	% 3,042	% 3,042	% 3,042

*Iturria: NDF, 2020.*




## 5. KANPO-MERKATARITZA

Kolonbiak bazkide komertzial ugari ditu, bai esportaziokoak eta bai inportaziokoak.

Jarraian ageri diren grafikoetan ikus daitekeen bezala, badago bazkide esportatzaile eta inportatzaile nagusi bat, Estatu Batuak hain zuzen, baina bazkide hori ez da iristen merkatu osoaren % 27ra. Horrek esan nahi du Estatu Batuetako ekonomiaren aldeketek ez dutela hainbesteko eraginik Kolonbiako merkataritza, eta ez duela hainbesteko menpekotasunik bazkide horrekiko. Halaber, aipatzekoa da gutxi direla bazkide komertzial europarrak, nahiz eta Kolonbiak merkataritza libreko ituna sinatua duen Europar Batasuneko kide diren 28 herrialdeekin. Kolonbiako esportazioei dagokienez, Espainia bakarrik sartzen da bazkide garrantzitsuenen artean, % 3ko kuota duelarik Kolonbiako guztizko esportazioen artean. Kolonbiak Europar Batasunetik egiten dituen inportazioak guztizkoaren portzentaje txiki bat dira, hala bazkide garrantzitsuenak dira Alemania guztizkoaren % 4ko portzentajearekin, eta Frantzia eta Espainia, % 2ko portzentajearekin.

### 5. grafikoa: Kolonbiaren bazkide komertzial garrantzitsuenak



*Iturria: Comtrade, 2019*

Gehien esportatzen diren produktuak dira erregaiak eta olio mineralak, bai petrolioa eta baita ere ikatza, azken hori delarik meatzaritza-iturri nagusia. Aipatzekoa da kafea ere, garrantzi handia baitu Kolonbiako esportazio-fluxuetan. Hirugarrenik, harribitxien meatzaritza eta erauzketa dago, esmeralden erauzketa eta merkataritza delarik jarduera ekonomiko garrantzitsuenak.



## 6. taula: Kolonbiatik esportatu diren produktu garrantzitsuenak muga-zergen kapituluka, 2018

HS KODEA	PRODUKTUA	BALIO ESPORTATUA (MILA USD, 2018)
'27	ERREGAI MINERALAK, OLIO MINERALAK ETA HAIETATIK DESTILATUTAKO PRODUKTUAK; MATERIAL BITUMINOSOAK; ARGIZARI MINERALAK	24.163.057
'09	KAFEA, TEA, MATE LANDAREA ETA ESPEZIAK	2.348.746
'71	PERLA FINAK (NATURALAK EDO HAZKUNTZAKOAK), HARRIBITXIAK EDO HARRI ERDIBITXIAK, METAL PREZIATUAK,	1.632.636
'39	PLASTIKOA ETA BERE MANUFATURAK	1.532.967
'06	LANDARE BIZIAK ETA LOREZAINZAKO PRODUKTUAK	1.477.877
'08	FRUTAK ETA FRUITU JANGARRIAK; PRODUKTU MIKATZEN (ZITRIKOAK) AZALAK, MELOIAK EDO SANDIAK	1.057.841
'72	GALDARAGINTZA, BURDINA ETA ALTZAIRUA	650.785
'87	AUTOMOBILAK, TRAKTOREAK, BELOZIPEDOAK ETA LURREKO BESTE IBILGAILU BATZUK, EUREN ZATIAK ETA OSAGARRIAK	645.700
'15	ANIMALI- EDO LANDARE-GANTZAK ETA -OLIOAK	623.021
'17	AZUKREAK ETA GOZOGINTZAKO ARTIKULUAK	518.266
'33	OLIO ESENTZIALAK ETA ERRETXINAK	467.488

## 7. taula: Kolonbiara inportatu diren produktu garrantzitsuenak muga-zergen kapituluka, 2018

HS KODEA	PRODUKTUA	BALIO INPORTATUA (MILA USD, 2018)
'84	ERREAKTORE NUKLEARRAK, GALDARAK, MAKINAK ETA GAILU ETA APARATU MEKANIKOAK	5.812.878
'85	MAKINAK, GAILUAK ETA MATERIAL ELEKTRIKOA ETA HORIEN ZATIAK	5.783.608
'87	AUTOMOBILAK, TRAKTOREAK, BELOZIPEDOAK ETA LURREKO BESTE IBILGAILU BATZUK, EUREN ZATIAK ETA OSAGARRIAK	4.341.840
'27	ERREGAI MINERALAK, OLIO MINERALAK ETA HAIETATIK DESTILATUTAKO PRODUKTUAK; MATERIAL BITUMINOSOAK; ARGIZARI MINERALAK	3.535.361
'39	PLASTIKOA ETA BERE MANUFATURAK	2.506.143
'30	PRODUKTU FARMAZEUTIKOAK	2.394.105
'29	PRODUKTU KIMIKO ORGANIKOAK	2.284.566
'72	GALDARAGINTZA, BURDINA ETA ALTZAIRUA	1.807.965
'10	ZEREALAK	1.667.482
'90	OPTIKA, ARGAZKIGINTZA EDO ZINEMATOGRAFIA, NEURKETA, KONTROL EDO ZEHAZTASUNEZKO TRESNA ETA GAILUAK	1.520.476
'88	HEGAZKINAK, IBILGAILU ESPAZIALAK ETA HORIEN ZATIAK	1.221.388

Iturriak: Comtrade, ITC, 2020.



Inportaziorako bazkide europarrei dagokienez, Europako potentzia garrantzitsuenak aztertu dira eta 7 kategoria ekonomiko nagusitan bereizi dira Comtrade-ren arabera. Horregatik, azpiko koadroak aztergai ditu Alemaniak, Frantziak, Italiak, Erresuma Batuak eta Espainiak 2018an izandako datuak. 4. grafikoarekin alderatuta, ikusten da Espainiak eta Alemaniak antzeko merkatu-kuota zutela Kolonbiako inportazioetan, baina 2019an Alemaniak % 4a erdietsi zuen eta Espainia, aldiz, % 2an geratu zen. Garrantzitsua da aipatzea nolako ekarpena egiten duen herrialde bakoitzak Kolonbian. Adibidez, Espainia esportazioko liderra da Kolonbian energia arloan, eta Alemania da Europako edari eta elikadura inportatzaile nagusia (eta hala da, besteak beste, Anheuser-Busch-en konpainia subsidiarioa den Kolonbiako “Bavaria” garagardo-enpresagatik, zeinak kontrolatzen baitu herrialdeko garagardo marka garrantzitsuenen eta inportatutako marka askoren produkzioa). Bestalde, Italia da Kolonbiako kapital-ondasunen inportatzaile handiena, Frantzia garraio-jardueran zentratzen da gehienbat, eta Erresuma Batua kontsumo-ondasunetan.

#### 7. taula: Kolonbiaren inportazioak jarduera ekonomikoka eta EBko herrialdeka

Kategoria	ALEMANIA	FRANTZIA	ITALIA	ERRESUMA BATUA	ESPAINIA
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.083.395</b>	<b>580.824</b>	<b>780.672</b>	<b>543.547</b>	<b>1.108.045</b>
1 - Elikadura eta edariak	580.246	181.991	273.621	332.943	260.880
2 - Erdi-manufakturak	50.621	85.110	221.666	29.518	103.538
3 - Energia	368.051	291.915	268.773	118.591	691.012
4 - Kapital-ondasunak	3.973	2.464	5.802	856	3.807
5 - Garraioeko elementuak	562	2.126	171	568	659
6 - Kontsumo-ondasunak	25.205	16.504	10.511	60.564	48.144
7 - Beste ondasun batzuk	76.389	86.060	125	554	14.192

*Iturria: Comtrade - BEC Classification by Broad Economic Categories, 2020.*



## 6. ALDEBIKO HARREMANAK

### 6.1 Euskadi eta Kolonbiaren arteko merkataritza

Euskadiko esportazioen ranking-ean (209 herrialde daude ranking horretan) Kolonia 41garren dago, 89,2 milioi euroekin.


8. taula: Euskadi eta Kolonbiaren arteko inportazioak eta esportazioak milaka eurotan, 2015-2018

	2015	2016	2017	2018	2019	18/19 BARIAZIOA
Esportazioak	101.542	85.623	133.146	89.282	90.139	% 0,96
Inportazioak	332.822	162.705	88.640	150.740	7.714	% -94,88
Balantza komertziala	-231.280	-77.082	44.506	-61.458	82.425	--

Iturria: EUSTAT, 2020.

Euskaditik Kolonbiara eginiko esportazioak aldakorrek izan dira azken urteetan, eta ez dute joera garbirik. Aldiz, Euskaditik Kolonbiarako inportazioak murriztu egin dira urtez urte, baina ikus liteke 2019an sekulako beherakada gertatu zela, urte horretako zifra 2018koa baino % 95 txikiagoa delarik. Horren arrazoia da Kolonbiako esportazioek petrolioarekiko menpekotasun handia dutela, eta oso aldakorrek izaten direla.

6. grafikoa: Euskadi eta Kolonbiaren arteko inportazioak eta esportazioak 2004tik, milaka eurotan



Iturria: EUSTAT, 2020.

Bi herrialdeen arteko merkataritza-saldoari dagokionez, 2011ra arte saldoa Euskadiren aldekoa izan zen, baina harrezkero inportazioek gaina hartu zieten esportazioei, eta ondorioz, saldo hori negatibo bihurtu zen Euskadirentzat. Petrolio inportazioek 2019an izan zuten beherakada bortitzaren ondorioz, Kolonbiatik eginiko





inportazioak 2018an baino % 95 txikiagoak izan ziren. Horregatik, urte horretako balantza komertziala positiboa izan zen Euskadirentzat.

Jarduera ekonomikoki sailkatzen badugu Euskadi eta Kolonbiaren arteko merkataritza, ikus daiteke zeintzuk diren EAEtik esportatzen diren jarduera garrantzitsuenak, bai eta gehien inportatzen diren produktuak. Gehien esportatzen den jarduera edo zerbitzu ekonomikoa da makinena eta burdin eta altzairuarena, biak ere jarduera ekonomiko garrantzitsuak euskal ekonomian. Aldiz, muga-zergetako kategorien arabera, erregai mineralak dira gehien inportatzen direnak, besteak beste, petrolio eta ikatza.

#### 9. taula: Kolonia eta Euskadiren arteko merkataritza produktua, 2019


PRODUKTUA	Balio esportatua (mila euro)	PRODUKTUA	Balio inportatua (mila euro)
85 Makina eta gailu elektrikoak	20.691	27 Erregai mineralak	145.124
72 Galdaragintza, burdina eta altzairua	19.204	28 Prod. kimiko inorganikoak	1.673
84 Makina mekanikoak	9.306	32 Larrua ontzeko estraktuak	1.622
48 Papera eta kartoia	5.867	76 Aluminioa eta bere manufakturak	978
86 Burdinbideetako ibilgailuak	5.306	09 Kafea, tea, mate landarea eta espeziak	532
90 Optikarako instrumentuak	3.817	08 Fruitu jangarriak	254
30 Produktu farmazeutikoak	3.469	74 Kobrea eta bere manufakturak	201
73 Galdaragintzako manufakturak	3.400	62 Arropak, puntuzkoak izan ezik	171
87 Automobilak	2.402	72 Galdaragintza, burdina eta altzairua	58
03 Arrainak	2.261	38 Askotariko produktu kimikoak	19
38 Askotariko produktu kimikoak	2.010	61 Puntuzko arropak	18
83 Metalezko manufakturak	1.355	85 Makina eta gailu elektrikoak	13
39 Material plastikoak	1.242	99 Sailkatu gabeak	13
94 Altzariak	1.103	06 Landare biziak	11
22 Edariak	955	15 Gantzak eta olioak	10

*Iturriak: EUSTAT, DATACOMEX.*

Espanian 2007ko krisi ekonomiko eta finantzarioa hasi aurretik, Euskaditik Kolonbiarako esportazioek batez beste % 10,58ko urteko kuota zuten Espainiako esportazioen guztizkoarekin alderatuta. 6. grafikoan ikus litezke Kolonbiak Euskaditik eta Espainia osotik eginiko inportazioak eta guztizkoarekiko portzentajeak. EAeko hazkundera Espainia osokoa baino txikiagoa izan bada ere, euskal esportazioen portzentajea % 9-17 bitartean aldatu da Espainia osoko esportazioekiko. EAeren gaitasun produktiboa eta ekonomikoa kontuan harturik, esan liteke portzentaje altua dela. Aipatzekoa da 2011n Euskaditik Kolonbiara egin ziren esportazioak Espainiako esportazio guztien % 16,77ra iritsi zirela, nahiz eta ez zen izan esportazio gehien egin ziren urtea. Datozen urteei begira, badirudi Espainiatik Kolonbiarako esportazioak % 10 inguruan mantenduko direla.



**7. grafikoa: Euskadiko eta Espainiako esportazioak Kolonbiara milaka eurotan, eta Espainiako esportazioetan duten %-a, 2005-2018**



Iturria: DATACOMEX, 2020.

Jarduera ekonomiko garrantzitsuenei eta horien gaineko pisu erlatiboari dagokienez, Euskaditik eta Espainiatik Kolonbiarako esportazioak alderatu beharko lirateke. Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioaren arabera, erdi-manufakturak izan ziren 2018an Espainiatik Kolonbiara gehien esportatu ziren jarduera ekonomikoak, bai eta amaierako manufakturak edo kontsumo-manufakturak eta ekipo-ondasunak. Azken horien kasuan, Euskal Autonomi Erkidegoa da Espainiako esportazioen barruan pisu gehien duena, Estatuko esportazio guztien % 20arekin. Bestalde, Espainiako esportazio guztiekin alderatuta, Euskadik pisu handia du erdi-manufakturen jarduera ekonomikoan, zehazki, guztizkoaren % 10,26koa.

**10. taula: Euskadiko eta Espainiako esportazioak Kolonbiara jarduera ekonomikoa, 2018**

Jarduera ekonomikoa	Espainiako esportazioak	EAEko esportazioak	Espainiako guztizkoarekiko %
Aukeratutako guztizkoa	969.325	89.282,05	% 9,21
1 ELIKADURA, EDARIAK ETA TABAKOA	103.160	3.418,54	% 3,31
2 PRODUKTU ENERGETIKOAK	2.854	15,94	% 0,56
3 LEHENGAIK	18.705	126,76	% 0,68
4 ERDI-MANUFATURAK	360.788	37.034,24	% 10,26
5 EKIPU-ONDASUNAK	221.630	43.438,45	% 19,60
6 AUTOMOBIL SEKTorea	57.753	2.111,78	% 3,66
7 KONTSUMO-ONDASUN IRAUNKORRAK	8.382	741,63	% 8,85
8 KONTSUMOKO MANUFATURAK	162.832	2.307,77	% 1,42
9 BESTE MERKATU-GAI BATZUK	33.222	86,94	% 0,26

Iturria: DATACOMEX, 2020.



## 6.2 Euskadiren posizionamendua

Kolonbia 2. lehtasun mailako herrialdea da Eusko Jaurlaritzaren 2017-2020 Enpresen Nazioartekotze Planean. Interesgarria da sakontzea Kolonbiako inportazioetan dugun posizionamenduan, jakiteko lehiakorrek garen ala ez termino erlatiboetan.

Euskadik sarpen komertzial handi samarra du Kolonbian, eta, termino erlatiboetan, 2017an seigarren herrialdea zen EAEko esportazioen zerrendan, Euskadik % 0,36ko kuota zuelarik Kolonbiako inportazio guztiekiko.

11. taula: Kuota ranking-a sektoreka 2017an, eta koten bilakaera hazkundearen arabera, 2002-2017

SECTORES	2017	SECTORES	Evol. 2017-2002	Evol. 2017-2012
86 Vehículos de vías férreas	75,64%	86 Vehículos de vías férreas	75,26%	72,85%
72B Barras y perfiles acero común	3,89%	73B Depósitos, recipientes	1,73%	1,28%
84D Grúas y aparatos elevación	2,02%	84D Grúas y aparatos elevación	-2,09%	1,05%
73B Depósitos, recipientes	1,99%	93 Armas y municiones	0,81%	0,63%
73D Otras manufacturas de hierro o de acero	1,42%	73D Otras manufacturas de hierro o de acero	-0,46%	0,61%
84C Máquinas herramienta para trabajar metal	1,34%	47-49 Pasta, papel y sus manufacturas	0,43%	0,40%
47-49 Pasta, papel y sus manufacturas	0,83%	87D Otros del capítulo de vehículos automoviles	0,34%	0,33%
93 Armas y municiones	0,81%	44-46 Madera y sus manufacturas	0,39%	0,29%
83 Manufacturas metálicas	0,57%	85A Motores y generadores eléctricos	0,35%	0,23%
72E Otros de fundición hierro y acero	0,48%	40 Caucho y manufacturas	0,21%	0,21%
44-46 Madera y sus manufacturas	0,40%	1 a 5 Productos del reino animal	0,19%	0,19%
85A Motores y generadores eléctricos	0,35%	76 Aluminio y manufacturas	0,14%	0,16%
87D Otros del capítulo de vehículos automoviles	0,35%	72E Otros de fundición hierro y acero	0,43%	0,13%
82 Herramientas y útiles	0,34%	68-70 Piedra, cementos y vidrio	0,07%	0,13%
22 Bebidas	0,31%	84E Equipamiento hostelería y aparatos domésticos	-0,05%	0,10%
84E Equipamiento hostelería y aparatos domésticos	0,28%	28-38 Productos químicos	0,02%	0,10%
40 Caucho y manufacturas	0,22%	85D Alumbrado	0,08%	0,07%
1 a 5 Productos del reino animal	0,20%	84F Otra maquinaria mecánica	-0,21%	0,07%
76 Aluminio y manufacturas	0,18%	84B Motores	0,04%	0,06%
68-70 Piedra, cementos y vidrio	0,17%	83 Manufacturas metálicas	-0,13%	0,06%
84F Otra maquinaria mecánica	0,17%	72D Barras y perfiles acero inoxidable y aleado	-0,26%	0,05%
39 Materias plásticas	0,15%	87B Vehículos para transporte mercancías	0,05%	0,05%
94-96 Muebles, juguetes, otras	0,15%	87A Vehículos automoviles	0,04%	0,04%
90-92 XVIII Aparatos de óptica y precisión	0,14%	75, 78-81 Otros metales y manufacturas	-0,10%	0,03%
85B Transformadores	0,13%	82 Herramientas y útiles	0,04%	0,03%
73A Tubos y accesorios	0,12%	22 Bebidas	0,09%	0,02%
28-38 Productos químicos	0,11%	72A Productos planos acero común	-0,13%	0,01%
85D Alumbrado	0,08%	85C Baterías, acumuladores, electroimanes	-0,05%	0,01%
85E Otros bienes de equipo eléctricos	0,08%	16-24 (-22) Productos alimenticios	0,00%	0,01%
99 No clasificados	0,08%	39 Materias plásticas	0,11%	0,00%
84B Motores	0,07%	25-27 Productos minerales	-0,02%	0,00%
72A Productos planos acero común	0,07%	88 Navegación aérea o espacial	0,00%	0,00%
72D Barras y perfiles acero inoxidable y aleado	0,06%	89 Navegación marítima o fluvial	0,00%	0,00%
87B Vehículos para transporte mercancías	0,05%	6 a 14 Productos del reino vegetal	-0,01%	0,00%
73C Cables, alambre, tornillería, muelles	0,05%	97 XXI Objetos de arte	0,00%	0,00%
87C Partes y accesorios	0,04%	15 Grasas y aceites	0,00%	0,00%
75, 78-81 Otros metales y manufacturas	0,04%	99 No clasificados	-5,01%	0,00%
87A Vehículos automoviles	0,04%	74 Cobre y sus manufacturas	0,00%	0,00%
71 Joyería y bisutería	0,04%	72C Productos planos acero inoxidable y aleado	-0,01%	0,00%
85C Baterías, acumuladores, electroimanes	0,03%	41-43, 50-57 Textiles y sus manufacturas	-0,03%	-0,02%
84A Calderas y turbinas	0,03%	85E Otros bienes de equipo eléctricos	0,01%	-0,02%
16-24 (-22) Productos alimenticios	0,01%	94-96 Muebles, juguetes, otras	-0,26%	-0,03%
41-43, 50-57 Textiles y sus manufacturas	0,01%	87C Partes y accesorios	-1,13%	-0,05%
25-27 Productos minerales	0,01%	90-92 XVIII Aparatos de óptica y precisión	-1,04%	-0,06%
74 Cobre y sus manufacturas	0,00%	71 Joyería y bisutería	0,04%	-0,12%
6 a 14 Productos del reino vegetal	0,00%	85B Transformadores	-0,02%	-0,22%
15 Grasas y aceites	0,00%	73C Cables, alambre, tornillería, muelles	-0,04%	-0,24%
97 XXI Objetos de arte	0,00%	73A Tubos y accesorios	-0,45%	-0,32%
89 Navegación marítima o fluvial	0,00%	84C Máquinas herramienta para trabajar metal	-3,93%	-0,37%
88 Navegación aérea o espacial	0,00%	84A Calderas y turbinas	-0,71%	-0,65%
72C Productos planos acero inoxidable y aleado	0,00%	72B Barras y perfiles acero común	2,47%	-1,27%

Iturriak: EUSTAT, DATACOMEX, 2017.

Burdinbideetako ibilgailuen sektoreko kuota asko hazi zen Kolonbian 2017an, % 75,64ra iristeraino. Ikus daitekeen bezala, sektore horren gorabeherak are nabarmenagoak dira oso inbertsio altuak egiten direlako.



Horregatik, burdinbideena sektore heldutzat hartzen da, zeren, herrialdeko inportazioak handitu gabe ere, EAEko kuota nabarmen handitu baita 2017an eginiko eskaera puntualen batengatik.

Aipatzekoa da orobat Kolonbiak eginiko inportazioak murriztu egin direla ia sektore guztietan; ondorioz, euskal esportazio gehienak esportazio helduen edo interes gutxikoen artean sailkatzen dira, betiere 2012-17ko datuen arabera. Gure esportazioen hazkunde handiena gorago aipatutako burdinbide sektorean biltzen da.

Jarraian grafiko bat dago non laburbiltzen den Euskadik Kolonbian duen posizionamendua sektoreka, eta hau da bere interpretazioa:


- **Indartsuak:** Sektore hauetan asko handitu dira Kolonbiako inportazioak azken 5 urteetan, eta Euskadiko kuota ere handitu egin da.
- **Helduak:** Inportazioak ez dira hazi, baina Euskadiren kuota bai.
- **Potentzialak:** Sektore hauetan asko handitu dira inportazioak azken 5 urteetan, baina Euskadiko kuota ez da handitu.
- **Interes gutxikoak:** Sektore hauetan inportazioak ez dira handitu azken 5 urteetan, eta Euskadiko kuota ere ez.

Arestian esan bezala, azken urteetan sektore askotan murriztu dira Kolonbiako inportazioak, eta horregatik daude kokatuta grafikoaren ezker aldean. Gainera, EAEko merkatu-kuota ez da handitu gehien kasuan; horregatik, grafikoaren behealdean daude kokatuta.

Bi salbuespen bakarrak dira, batetik, burdinbideetako garraioa, non EAEko kuota handitu egin den, baina ez erritmo konstante batean Kolonbiako inportazioekiko (gorago aipatu bezala, eskaera puntualak izan dira). Horregatik dago kokatuta sektore helduen artean. Bestetik, edarien sektorea nahiko indartsua da eta badu potentziala Kolonbiako inportazioak asko hazi direlako. Sektore horrek ez du gorakada handirik izan EAEko tokiko merkatuan, baina bai Kolonbiakoan, eta horregatik dago kokatuta sektore potentzialen artean, zeinetan Kolonbiak nazioartekotzearen aldeko apustua egin behar duen.



8. grafikoa: Kolonbiak inportatutako euskal produktuen hazkundera sektoreka, 2012-2017



16-24 (-22)	Productos alimenticios	73C	Cables, alambre, tornillería, muelles	85A	Motores y generadores eléctricos
22	Bebidas	73D	Otras manufacturas de hierro o de acero	85B	Transformadores
25-27	Productos minerales	74	Cobre y sus manufacturas	85E	Otros bienes de equipo eléctricos
28-38	Productos químicos	76	Aluminio y manufacturas	86	Vehículos de vías férreas
39	Materias plásticas	82	Herramientas y útiles	87A	Vehículos automóbiles
40	Caucho y manufacturas	83	Manufacturas metálicas	87B	Vehículos para transporte mercancías
47-49	Pasta, papel y sus manufacturas	84B	Motores	87C	Partes y accesorios
72A	Productos planos acero común	84C	Máquinas herramienta para trabajar metal	88	Navegación aérea o espacial
72B	Barras y perfiles acero común	84D	Grúas y aparatos e levacion	89	Navegación marítima o fluvial
72D	Barras y perfiles acero inoxidable y aleado	84E	Equipamiento hostelería y aparatos domésticos		
73A	Tubos y accesorios	84F	Otra maquinaria mecánica		

Iturria: EUSTAT, DATACOMEX, agentzian egina

## 6.3 Aldebiko inbertsioak

Kolonbian 70 euskal enpresatik gora daude ezarrita, bai filial produktiboak nahiz komertzialak, bai eta *Joint Venture* motako sozietateak eta harreman subsidiarioa dutenak. Sektoreak askotarikoak dira, baina nabarmenenak dira energia sektorea, ingeniari-tza proiektuak, eraikuntza eta aholkularitza.

Bestalde, Euskadin badago osasun sektoreko Kolonbiako enpresa baten ezarpen komertzial bat.



## 7. SEKTORE NAGUSIAK

### 7.1 BPGari egindako ekarpena

Hauek dira sektore ekonomikoak eta Kolonbiako BPGan duten pisua:

**12. taula: Sektore ekonomiko desberdinen inpaktua Kolonbiako BPGan, 2018**

SEKTOREA	BPGaren % (2018)
Nekazaritza, arrantza eta basogintza	% 13,6
Industria, eraikuntza barne	% 19,1
Zerbitzuak	% 67,3

*Iturria: MinComercio, DANE, 2020.*

Sektoreek BPGra egiten duten ekarpenaren arabera, zerbitzu sektoreak egiten du ekarpen handiena (% 67). Bien bitartean, industriak ia % 20ko zatia hartzen du, eta lehen sektoreak % 13koa.

DANE edo Estatistikako Departamendu Administratibo Nazionalaren arabera, BPGaren hazkundera % 3,3koa izan zen 2019an. Horregatik, jarduera batzuek aurreko urtean baino ekarpen handiagoa egin zuten BPGra. Hala ikusten da taula honetan:

**13. taula: BPGaren hazkunde-tasa jarduera ekonomikoaren arabera**

JARDUERA EKONOMIKOA	Hazkunde tasa, % 2018-2019	Balioa, mila milioi pesotan	BPGko %
Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza, ehiza eta arrantza	% 2,00	54.489	% 6,18
Meatze eta harrobien ustiaketa	% 2,10	43.660	% 4,95
Manufaktura-industriak	% 1,60	104.555	% 11,85
Argindar, gas, lurrin eta aire girotuaren hornikuntza	% 2,80	26.679	% 3,02
Eraikuntza	% -1,30	57.875	% 6,56
Merkataritza, garraioa, ostatua eta otordu-zerbitzuak	% 4,90	152.577	% 17,30
Informazioa eta komunikazioak	% 1,70	24.867	% 2,82
Finantza eta aseguru arloetako jarduerak	% 5,70	41.215	% 4,67
Higiezin jarduerak	% 3,00	78.744	% 8,93
Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak	% 3,70	61.162	% 6,93
Administrazio publikoa eta defentsa, hezkuntza eta osasuna	% 4,90	131.877	% 14,95
Jarduera artistikoak, entretenimendua eta aisialdia	% 3,40	21.640	% 2,45
<b>Balio agregatua</b>	<b>% 3,20</b>	<b>800.370</b>	<b>% 90,75</b>
Produktuen gaineko zergak ken dirulaguntzak	% 4,60	81.565	% 9,25
<b>Barne Produktu Gordina</b>	<b>% 3,30</b>	<b>881.958</b>	<b>% 100,00</b>

*Iturria: DANE, 2020.*

BPGan balio handiena duten jarduera nagusiak merkataritza eta garraioa dira (152 bilioi peso). Jarduera edo partida hori % 4,9 handitu zen aurreko urtearen aldean, eta gaur egun BPG nazionalaren % 17,3 hartzen du. Aipatzekoa da baita ere administrazio publikoek duten garrantzia, adibidez hezkuntzak, osasunak eta



defentsak, hiruren artean 131 bilioi peso mugitzen baitutuzte (BPGaren % 14,95). Gainera, % 4,9ko hazkundea izan dute 2018aren aldean. Azkenik, eta jarduera ekonomiko nagusia izan ez arren, finantza eta aseguru jarduerak % 5,7 hazi dira aurreko urtearen aldean. Horregatik, jarduera hori 41 bilioi pesora iritsi da, BPG nazionalaren % 4,67 hartuz.

## 7.2 Negozio-aukerak

“6.2.- Euskadiren posizionamendua” puntuan ikusi dugun bezala, badaude sektore eta jarduera ekonomiko batzuk oraindik heldutasunera iritsi ez direnak eta potentzial gisa sailkatzen direnak. Horien artean daude gorago aipatutako edarien sektorea, bai eta Kolonbiaranzko esportazioak handitu dituzten beste jarduera ekonomiko batzuk ere, hala nola, aluminioa eta bere manufaktura, edo altzairu herdoilezinez eta beste altzairu aleatu batzuek eginiko egitura eta profil desberdinak.

Jardueren banaketari dagokionez, esan liteke sektore edo jarduerak nahikoa banatuta daudela geografikoki.

### 1. ilustrazioa: Kolonbiako negozio-aukeren mapa, sektoreka



Iturria: Procolombia, 2020

Industriari dagokionez, badago sektore bat negozio eta inbertsio aukera asko eskaintzen dituen, alegia automozioa, hainbat baitira auto zein motozikleten auto-zatien mihizatze- eta produkzio-lantegiak. Adibidez, Kolonbiako mihizatze-lantegi garrantzitsuenak --General Motors, Mazda, Toyota eta autobuses Marcopolo-- Cundinamarca eta Bogota departamenduetan daude. Cauca Harana aukera aproposa da sektore horretan inbertitzeko, bertan baitago Buenaventurako portua, Kolonbia Ozeano Barearekin eta Asiarekin konektatzen duena eta merkataritza nazionalaren % 28 baino gehiago mugitzen duena, eta gune horretan daude auto-zatien fabrikatzaile asko, bai eta Daewoo Bus enpresaren mihizatze-lantegia ere. Iparraldean aipatzekoa da Barranquilla hiria, hango portua eta aduana-zergarik gabeko eremua konexio-portu aparta delako Europarako eta AEBetarako, eta hantxe daudelako autobus, kamioi eta ibilgailu arinen mihizatze-lantegiak. Gainera, auto-zatiak ekoizten dituzten mundu mailako enpresek (adibidez Saint Gobain-ek) filialak dituzte Atlantikoko hirian. Aldiz, kosmetika eta garbitasunaren industria herrialde osoan zabalduta badago ere, sektoreko enpresen % 57 Bogotan biltzen dira, eta asko multinazionalak dira. Horrez gain, ugariak dira testak egiteko eta I+G-ko laborategiak, osagai natural eta landareen hornitzaileak eta lan-esku kualifikatua.



Azkenik, oihalgintza eta arropagintzaren industria ere aukera ona da inbertitzeko. Antiokia eta Bogota dira, hurrenez hurren, arropagintzaren eta oihalgintzaren zentroak. Gainera, badaude klusterrak, azokak eta nazioarteko ekitaldiak, industria hori gero eta lehiakorrago eta erakargarriago egiten dutenak.

Azken hamarkadetan zerbitzuen sektorea asko hazi da, inbertsio handiko proiektuekin eta etorkizuneko aurreikuspen onekin. Hauek izango omen dira gehien haziko diren jarduerak: turismoa (hotelen eta turismoaren azpiegiturak), zerbitzuen tertziarizazioa eta BPO, eta software eta IT zerbitzuak. Turismoa herrialde osoan zabaldua dago. Software eta IT zerbitzuak, bestalde, bi ardatzetan banatzen dira. Lehenengoak, Bogota eta Antiokia barne hartzen dituenak, bere baitan kontzentratzen ditu *outsourcing* jarduerak egiten dituzten Latinoamerikako konpainia gehienak, eta baita ere *Customer Care*, ESO, FAO eta I+G-ko zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresa batzuk. Bigarrenak, hots, iparraldeko ardatzak (Atlantikoa eta Bolivar), software garapeneko enpresak eta Internet zerbitzariak biltzen ditu, Europa eta Ipar Amerika konektatzen dituzten urpeko 5 kable igarotzen baitira handik. Azkenik, petrolio-zerbitzuei dagokienez, hainbat putzu daude herrialde osoan. Erreserba handienak Meta eta Casanare eskualdetan daude, eta Venezuelarekiko mugan, hego-ekialdean (Santander, Arauca), ere badira putzu batzuk, inbertsio premian daudenak.





## 8. NAZIOARTEKO HARREMANAK

### 8.1 Nazioarteko kidetasunak

90eko eta 2000ko hamarkadetan, Kolonbiak nazioarteko lankidetzako hainbat itun sinatu zituen, eta baita merkataritza libreko itunak ere, batzuetan hirugarren herrialdeekin eta bestetan eskualdeekin. Hala, bazkide komertzial berriak lortu zituen. Baina Kolonbia ohartu zen bere inguruko hainbat herrialdetan (Venezuela, Bolivia eta Ekuador) enpresa edota sektore batzuk nazionalizatzeko arriskua zegoela, eta neurri murriztaileagoak aplikatu zituen nazioarteko merkataritzan, batik bat, Atzerriko Inbertsio Zuzenari (AIZ) dagokionez. Halere, azken urteotako joerak erakusten du Kolonbia ari dela hainbat bazkideren sarrera liberalizatzen.

Bazkideei dagokienez, Kolonbia Andeetako Komunitateko kide da, Ekuador, Peru eta Boliviarekin batera. Merkataritza librea baimenduta dago herrialde kide guztien artean, eta herrialdeen arteko zirkulazio librea ere bai (pasaportetik gabe). Halaber, Pazifikoko Aliantzako kide da Mexiko, Peru eta Txilerekin batera. Aliantza horren helburua da eskualde arteko integrazioa sustatzea, eta ekonomia nazionalen hazkunde, garapen eta lehiakortasun handiagoak lortzea. Azken aliantza edo integrazio hori oraindik ez dago indarrean.

### 8.2 Merkataritza-akordioak

Komunitate horietako kide izateaz gain, Kolonbiak Merkataritza Libreko Itunak (MLI) sinatu ditu hemen zerrendatuta datozen komunitate edo herrialdeekin, itun horien helburua delarik nazioarteko merkataritza sustatzea eta Kolonbiako ekonomia bultzatzea. Hauek dira Kolonbiak sinatuta dauzkan MLIak:

#### Aliantzak komunitateekin:

- Karibeko komunitatea – CARICOM: 12 herrialde
- Europar Batasuna: 28 herrialde
- Pazifikoko aliantza: 3 herrialde
- MERCOSUR: 4 herrialde
- EFTA: 4 herrialde

#### Merkataritza Libreko Itunak (MLI) beste herrialde batzuekin:

- Mexiko
- Kanada
- Costa Rica
- Kuba
- Txile
- Salvador
- Amerikako Estatu Batuak
- Guatemala
- Honduras
- Mexiko
- Koreako Errepublika (Hego Korea)
- Venezuela (partziala)



## 9. ASKOTARIKO ARRISKUAK

“Coface” kreditu-aseguruen munduko enpresa garrantzitsuenetako bat da eta, besteak beste, herrialdeen arriskua eta negozioetarako giroa kalifikatzen ditu. Horrela, arrisku orokorra kalkulatzeko, enpresa-faktore espezifikokoak eta enpresaren herrialdeari dagozkion faktoreak konbinatzen ditu. Analisi horrek zazpi mailako sailkapen bat erabiltzen du, arrisku txikienetik handienera doana: A1, A2, A3, A4, B, C eta D. “Coface”-ren arabera, hauek dira Kolonbiak atera dituen kalifikazioak:

14. taula: Kolonbiari buruzko Coface-ren balorazioa

Herrialdea	Herrialdearen arriskua	Negozioetarako giroa
Kolonia	B	A4
Indar-guneak	Ahuluneak	
Portuak bi ozeanoetan 1a 50 milioi biztanle	Sentikorra da lehengaien prezio-aldaketarekiko Ekonomia ez dago dibertsifikatuta (manufakturei dagokienez)	
Baliabide natural asko (petrolio, ikatza, urrea...)	Azpiegitura kaskarrak (errepideak eta portuak)	
Turismoaren potentzial handia	Segurtasun eskasa, droga-trafikoagatik, meatzaritza ilegalagatik eta talde terroristengatik	
Egonkortasun instituzionala	Langabezia estrukturala, pobrezia eta desberdintasunak	

*Iturria: COFACE, 2020*

Aurreikuspenen arabera, jarduera ekonomikoak berdin jarraitu behar luke 2020an, baina nazio mailako eskaeraren desazelerazioa gero eta nabarmenagoa da. Gainera, etxeetako kontsumoak ere beheranzko joera du, lan-merkatuaren ahuleziagatik. Bestalde, aurreikuspenek diote hazkunde ekonomiko espero zena baino txikiagoa izango dela, hainbat arrazoiengatik: petrolioaren prezioen jaitsieragatik, AIZ-k BPGri egiten dion ekarpen txikiagoatik, desazelerazioagatik (zeina AEBetako, hots, Kolonbiaren bazkide esportatzaile garrantzitsuenarena baino handiagoa izango baita) eta gizartearen protestak piztu dituzten murrizketengatik.

Defizitak, bai termino korranteetan bai fiskaletan, atzeraldia eragin dezake maila globalean: defizita hazi egin zen 2019an, petrolioaren eta erauzketako beste material batzuen (ikatza eta beste mea batzuk) esportazioen jaitsierak defizit komertzial handiagoa sortu zuelako, eta joerek diote berdin jarraituko duela 2020an ere. Bestalde, AIZ edo Atzerriko Inbertsio Zuzenaren zifra ez da nahikoa kanpo-defizita estaltzeko. Zorra Kolonbiako BPGaren % 42,7koa da: % 54ko zor publikoa eta % 46ko zor pribatua. Horregatik, Kolonbiako gobernuak 11 mila milioi dolarreko kreditu bat eskatu zuen iaz, likidezia handiagoa izateko.

Azkenik, 2019ko hauteskundeetan Iván Duque bigarren itzulian iritsi zen errepublikako presidentetzara botoen gutxiengoarekin eta horrek zatitu egin du Kolonbiako gizartea. Osasun, hezkuntza eta pentsioen arlo publikoetan aplikatu dituen murrizketek, segurtasun gabeziak eta gobernuaren okultismoak hainbat protesta eragin zituzten 2019an, eta aurreikusten da 2020an hainbat lanuzte antolatuko direla.



## 10. ONDORIOAK

Kolonbia herrialde aproposa da inbertitzeko hainbat arrazoirengatik. Latinoamerikako konoaren iparraldean kokatua, Ozeano Pazifikoarekin (Asia) eta Atlantikoarekin (Europa eta AEBak) konektatzen da, eta horrek aukera ematen dio hirugarren herrialdeekin komunikatzeko.

Ekonomiari dagokionez, Latinoamerikako herrialde gehienak bezala, azken urteetan bere BPGaren batez besteko hazkundea % 3koa izan da. Aipatzekoa da Kolonbiako BPGaren hazkundea Latinoamerikako batez bestekoa baino handiagoa izan dela. Gainera, kalkulatzen da hazkunde hori berdin mantenduko dela datozen urteetan, salbu eta 2020an. Hazten ari den ekonomia bat da, eta aberatsa da baliabide naturaletan. Bestalde, Latinoamerikako gainerako ekonomiek bezala, ezugarritzat ditu ezegonkortasun ekonomikoa eta aldaketak, bai politika ekonomikoetan, eta baita ere atzerriko inbertsio politiketan.

Kanpo-inbertsioei eta kanpo-merkataritzari dagokienez, badira zenbait faktore oso argiak ez direnak. Kanpo-merkataritzaren joerei erreparatuz gero, esan liteke merkatua irekiago edo itxiago egon dela fase desberdinetan. Gaur egun, merkatuaren irekiera sustatzen ari dira nazioarteko merkataritza bultzatzeko, Merkataritza Libreko Itunak sinatuz eta aukerak eskainiz herrialdean inbertitzeko. Zenbakiei errapatuz, balantza komertziala negatiboa izan da historikoki. 2007ko krisi ekonomiko eta finantzariotik aurrera saldoa positiboa izatera iritsi bazen ere, 2014tik aurrera zenbaki negatiboetan kokatu zen berriro. Bestalde, Kolonbia eta Euskadiren arteko kanpo-merkataritzari dagokionez, Euskadiko esportazioen ranking-ean (209 herrialde daude ranking horretan) Kolonbia 41garren dago, 90 milioi euro esportatu zirelarik 2019an. Nahiz eta 2011ra arte saldoa positiboa izan zen Euskadirentzat, Kolonbiatik eginiko petrolio-inportazioak asko hazi ziren, eta zenbaki negatiboetan kokatu zuten balantza 2018ra arte. Aldiz, 2019an balantza positibo bihurtu zen berriro Euskadirentzat. Euskal enpresarentzat potentzial handia dute edarien sektoreak eta beste sektore industrialago batzuek, hala nola, altzairuak eta aluminioak, eta makina-erremintak.

Hala ere, bai gobernu zentrala eta bai bere departamenduak tamaina handiko proiektuak lizitatzen eta esleitzen ari dira, batik bat energia berriztagarrien eta azpiegituren arloetan, horiek direlarik aukera gehien eskaintzen dituzten sektoreetako bi. Horregatik, enpresa multinazionalak Kolonbian posizionatzen ari dira.

Laburbilduz, bai Kolonbian eta bai eskualde horretako beste herrialdeetan ziurgabetasuna da nagusi etorkizunera begira. Horrela beraz, Kolonbiako negozio-aukerak kontu handiz baloratu behar dira ezegonkortasun politiko, ekonomiko eta sozialagatik, eta kanpotik somatzen dugun ustelkeria eta segurtasun ezagatik.



## 11. ERREFERENTZIAK

- BASQUE TRADE & INVESTMENT (2019): Nazioarteko merkataritzari eta euskal esportazioen posizionamenduari buruzko txostena
- CIA (2020): The World Factbook: <https://www.cia.gov/library/publications/the-world-factbook/>
- COFACE (2020): Colombia: Economic Studies and Country Risks <https://www.coface.com/Economic-Studies-and-Country-Risks/Colombia>
- DANE, Estatistikako Departamendu Administratibo Nazionala (2020): Barne Produktu Gordina (BPG) 2015 <https://www.dane.gov.co>
- DATACOMEX (2020): Espainiako kanpo-merkataritzaren estatistikak <http://datacomex.comercio.es/>
- EUSTAT (2020): Kanpo-merkataritzaren Datu-basea <https://www.eustat.eus>
- ICEX (2020): Kolonia: informazio ekonomiko eta komertziala <https://www.icex.es>
- IMF (2019): World Economic Outlook Database <https://www.imf.org/>
- MERKATARITZA, INDUSTRIA ETA TURISMO MINISTERIOA (2019): Kolonbiaren profila <https://www.mincit.gov.co/getattachment/1c8db89b-efed-46ec-b2a1-56513399bd09/Colombia.aspx>
- MERKATARITZA, INDUSTRIA ETA TURISMO MINISTERIOA (2020): Merkataritza Libreko Itunak Kolonbian <http://www.tlc.gov.co/>
- PROCOLOMBIA (2018): Aukeren mapa <https://www.inviertaencolombia.com.co/>
- SANTANDER TRADE (2020): Gobernua eta politika Kolonbian <https://santandertrade.com/es>
- THE WORLD BANK (2020): Colombia Country Profile <https://data.worldbank.org>
- UNCTAD (2019): World Investment Report [https://unctad.org/en/PublicationsLibrary/wir2019\\_en.pdf](https://unctad.org/en/PublicationsLibrary/wir2019_en.pdf)
- WORLD TRADE ORGANIZATION (2020): Database <https://data.wto.org/>

© Agencia Vasca de Internacionalización  
Basque Trade and Investment S.A.



**BasqueTrade  
& Investment**

Agencia Vasca de Internacionalización  
Nazioartekotzeko Euskal Agentzia

GRUPO  
**spri**  
TALDEA



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**  
BASQUE GOVERNMENT